



NAFARROAKO GOBERNUAREN PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN 2023. URTEKO PLANA

1. Plangintza honen barnean daude Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek sustatzen dituzten publizitate-ekintza guztiak. Plangintza honetatik kanpo daude «Nafarroako Turismoa» marka sustatzeko publizitate-kanpainak, berariazkoak direlako eta Foru Komunitatetik kanpo eragiteko asmoa dutelako batez ere.
2. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia izanen da kontratazio organoa plangintza betearazteko egiten diren publizitate-kontratu guztietan, eta Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala izanen da kontratu horiek kudeatuko dituen unitatea. Atal horrek publizitate-kanpaina bakoitzaren bitartekoen plana diseinatuko du (dagoen aurrekontuarekin hedapenik handiena izateko behar diren publizitate-espazioen kontratazioa), bakoitzaren berezitasunen eta xede diren hartzaileen arabera, eta orobat kudeatuko ditu bai publizitate-sormeneko kontratuak, bai publizitate-espazioak erosteko kontratuak.
3. Hedabideetan publizitate-espazioak erostea kontratatuz gero, publizitate kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztuko da zenbat iragarki eta espazio kontratatuko diren (1/2003 Foru Agindua, Tokiko Administrazio Kontseilariarena, Gobernuaren eledun den aldetik). Audientziaren irizpide nagusia neurtzeko, Nafarroako 2022ko Audientzien Azterketa erabiliko da, CIES SL enpresarena (komunikabideen, publizitate agentzien eta erakundeen finantzaketarekin egindakoa, tartean Nafarroako Gobernua bera dagoela).
4. Nafarroako hizkuntza ofizialak publizitate mezuetan erabiltzeari dagokionez, Komunikazio Zerbitzuak, oro har, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu bere publizitate mezuek diseinatu eta prestatzean.
5. Nafarroako Gobernuak publizitate mezuek diseinatzean, Komunikazio Zerbitzuak zainduko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dela, LGTBI+ kolektiboari ikusgarritasuna ematen zaiola, kulturarteko aniztasuna erakusten dela eta publizitate mezuen irisgarritasunari buruzko foru araudia betetzen dela.
6. Nafarroako Gobernuak ikurrak publizitate mezuetan erabiltzean, Komunikazio Zerbitzuak Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du, modu grafikoan edo lokuzioaren bidez, publizitate mezu guztietan, ikur ofizial hori eta haren erabilera arautzen duen urtarrilaren 7ko 4/2016 Foru Dekretuaren arabera. Horrez gain, Navarra/Nafarroa Suspertu, Next Generation UE eta Eraldaketa Plana markak txertatuko dira plan horiekin lotutako edo finantzatutako kanpainetan.



7. Publizitate instituzionaleko kanpaina nagusizat hartuko dira 50.000 euroko edo gehiagoko publizitate-espazioak kontratatzen dituztenak. Eta gastu txikiagoko kanpainak publizitate instituzionaleko kanpaina txikitat hartuko dira, eta ez dira plangintza honen xede izanen.

8. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak honako kanpaina hauek finantzatuko ditu indarrean dagoen gastu-aurrekontuko 060001 06100 2262 921500 partidaren kontura ("Publizitate instituzionala"izenekoa) , 500.000 euroko inbertsioarekin:

HASIERA EGUNA	KANPAINAREN ARRAZOIA	UNITATE SUSTATZAILEA	AURREIKU SITAKO
Urtarrila	Eskola publikoa sustatzea	Hezkuntza Departament	100.000
Otsaila	Next Generation EB programen laguntzen zabalkundea	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	100.000
Martxoa	Eraginkortasun energetikoa eta energia	Hainbat departamentu	100.000
Apirila	Errenta aitortpena	Ekonomia eta Ogasun	100.000
Azaroa	Nafarroaren Eguneko ekitaldien zabalkundea	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko	100.000

9. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak 50.000 euro gehiago gordeko ditu, indarrean dagoen aurrekontuko 060001 06100 2262 921500 partidaren kontura («Publizitate instituzionala» izenekoa), planifikatu gabeko gobernu-ekintzari lotutako edo ezustean egin beharreko publizitate-inbertsioetarako.

10. Plangintza honetako kanpainak eta ekintzak (plangintza honetako 8. eta 9. puntuak) gauzatzeko gastuak txikiagoak izan direlako publizitate Instituzionaleko partidari saldirik izanez gero, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak aukera izanen du saldo hori erabiltzeko bai Urteko Plan honetako departamentuen publizitate-gastua kofinantzatzeko (12. puntuan aurreikusitako kanpainak), bai ezustean egin beharreko eta Plan honen xede izan ez diren beste publizitate-ekimen batzuetarako (13. puntua).



11. Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek erabiltzen dituzten sare sozialetan plangintza honen 8. puntuan ageri diren kanpaina instituzionalek publizitate-zabalkunde handiagoa izan dezaten, Komunikazio Zerbitzuak 15.000 euroko partida berariazko bat izanen du 2023ko gastu-aurrekontuan: 060001 06100 2262 921503 partida, "Publizitatea sare sozialetan" izenekoa.

12. Unitate sustatzaileen aurrekontuen kontura, eta 516.000 euroko inbertsioarekin, honako kanpaina hauek ere egingen dira 2023an:

HASIERA EGUNA	KANPAINAREN ARRAZOIA	UNITATE FINANTZATZALEA	AURREIKU SITAKO
Urtarrila	Haur eta gazteen artean euskara sustatzea	Herritarrekiko Harremanetako	55.000
Urtarrila	Umetoki-lepoko minbizia goiz detektatzeko programaren zabalkundea	Osasun Departamentua	80.000
Urtarrila	Irisgarritasun unibertsaleko laguntzen programaren zabalkundea	Eskubide Sozialetako Departamentua	64.000
Martxoa	Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko	55.000
Maiatza	Gehiegizko pisua prebenitzea: elikadura eta kirola	Osasun Departamentua	50.000
Uztaila	Kultur programen eskaintza sustatzea	Kultura eta Kirol Departamentua	57.000
Iraila	Helduen artean euskara sustatzea	Herritarrekiko Harremanetako	55.000
Urria	Sexu-transmisiozko gaixotasunen	Osasun Departamentua	50.000
Azaroa	"Gora Gora Fest" programaren	Herritarrekiko Harremanetako	50.000

13. Era berean, Nafarroako Gobernuak departamentuek publizitate instituzionaleko beste kanpaina batzuk sustatzen ahalko dituzte, plangintza honetan jasotako bezelakoak, publizitate kontrataziorako aurrekontu-kreditu egokien kontura.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Departamento de Presidencia, Igualdad,
Función Pública e Interior
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua

Servicio de Comunicación
Komunikazio Zerbitzua
Avda. Carlos III, 2-planta baja
Karlos III.a. etorb., 2-beheko solairua
31002 PAMPLONA / IRUÑA

Enkargu horiek ordezekoak izanen dira Plan honen 8. eta 12. puntuetan jasotako kanpainen aldean eta irailaren 30a baino lehen egin beharko dira, kasuan kasuko kanpainak 2023ko ekitaldian zehar zabaldu ahal izateko. Abenduan publizitate ekintzak aurreikusten dituzten kanpainak 2024ko ekitaldiko aurrekontu kredituaren kargura finantzatuko dira.

14. Komunikazio Zerbitzuak 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratuko du Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian Nafarroako Gobernuak 2023ko ekitaldian publizitate instituzionalean egindako inbertsioak gauzatzeari buruzko txostena.